

Hamar urte eguneroko bizimodua euskalduntzen

Iruñeko Xabier Kalean bada argi berezia duen denda bat: Karrikiri. Euskal produktuen denda baino gehiago da; Iruñeko Karrikiri Euskara Elkartearen egoitza dago bertan. Hamar urte daramatza elkarte horrek Iruñerrian lanean euskaraz bizitzera animatuz eta horretarako azpiegitura eskainiz.

ITSASO IBARRA

KARRIKIRI, Nafarroako hiriburuan, eguneroko bizitzan beharrezkoak diren erosketetan, etxean edota jaietan euskaraz bizi ahal izateko bidea errazten saiatzen da. Hala, besteak beste, Mintzakidea, Pisu-kidea, Merkataritza gida, lan poltsa, *Karrika* aldizkaria, Karribusa, Karrika gurea da eta Atun jana jaiak eta denda ditu elkarteak euskaldunen eskura.

Etxean eta lanean

Pisu-kidea eta lan poltsa dira Karrikirin erabat finkaturik dauden ekin-tzetariko bi. Ekintza hauetan bitartekari lana egiten du Karrikirik, batzuetan Atarrabiako Karrikaluze elkartearen laguntzarekin.

Pisu-kidea ekintzaren bitartez Iruñean bizitzeko lagun euskalduna izan nahi duenari etxea bilatzen laguntzen dio elkarteak. Batzuk gela bat eskaintzen dute elkartearen eta besteak berriz gela hori betetzeko lagunaren bila joaten dira. Ainhoa Fernandez, Karrikiriko kideak dioenez, “Oso ondo dabil ekimena, iraila eta urrian ikasle eta irakasleak Iruñera datozenean nabaritzen da gehien. Askotan, maleta eta guzti etorri izan dira. Euskaldunei zuzen-duko zerbitzua bada ere, izan dira bertara pisu bila gerturatu diren erdaldunak: haserretu egin izan zaizkit beraientzako zerbitzua ez dela esatean”.



Iruñeko alde zaharrean dago Karrikiriren denda, baita elkartearen egoitza ere.

Lan poltsaren bitartez euskaraz lan egin nahi eta langile euskalduna kontratatu nahi duen pertsona harremanetan jartzen ditu elkarteak. Jasotzen dituzten lan eskaintzen artean denerarik izaten da: tabernariak, dendariak, ile apaintzaileak, abokatuak, itzultzaileak, begiraleak... Baina, gehienbat haurrak zaintzeko edota hurrei eskolaz kanpoko klaseak emateko eskaerak jasotzen dituzte: “Iruñerrian hurrekin aritzeko jende euskalduna behar da. Guraso erdaldun asko dago haurrak D ereduan matrikulatuak dituztenak eta hauek haurrak euskaldun batekin egotea nahi izaten dute”, dio Fernandezek.

Lan eske joaten direnen artean berriz denetik aurki daiteke, nahiz eta gehienak 20-25 urte bitarteko Iruñerriko eta Euskal Herriko gainerako tokieta-ko gazteak diren.

Euskaldunak elkartzeko erabiltzen duten beste bidea Mintzakidea ekimena da. Honen bitartez euskara ikasten ari dena edo hobetu nahi duena euskaldun zahar batekin elkartzen dute, euskaldun berriak dakien euskara dantza dezan.

Euskaraz erosi

Iruñean euskaraz bizi daitekeen galdetuta baiezkkoa eta ezezkoa erantzun dute Karrikiri elkarteko kideek; izan

Karrikiri sarean

Xabier kaletik Internetera egingo du salto Karrikirik laster, www.karrikiri.org webgunean elkartearen nondik norako guztiak jasotzeko aukera izango baita. Bertan, Pisu-kide, Minztakide edota Lan Poltsan izena emateko aukera izango dute bisitariek. Bestalde, denden gida eta *Karrika* aldizkaria irakurtzeko aukera ere izango da. San Ferminei begira berriz, Iruñera gerturatzen direnei giro euskalduna non aurki dezaketen ere azalduko diete Karrikiriko kideek bisitariari webgune honen bitartez. Erosketak Internet bidez egiteko aukera ere izango da, Karrikiri denda sarean izango baita. Sarean nahiz kaleko dendan euskal produktuak edo euskal kulturarekin loturiko produktuak eros daitezke: arropa, liburuak, diskoak...

ere, administrazioan edo komertzio batzuetan ezin izaten dute euskaraz jardun. Hala ere, bada eguneroko bizitza euskaraz egiteko modua: "Iruñean euskaldunen arteko zirkuitu bat dago. Beste euskaldunen bidez beste bide batzuk ezagutzen ditugu euskaraz bizi ahal izateko", dio Juan Luis

Irailean hasi ziren

Karribusarekin eta

aurtengorako hainbat

txango antolatu dituzte:

Martxoaren 24an Biasterira

egingo dute irteera,

apirilaren 28an Pagoetara,

maiatzaren 19an Bermeora

eta ekainaren 30ean berriz,

Oñatira gerturatuko dira

Karrika aldizkariak hamar urte

Martxoan hamar urte egin ditu *Karrika* hilabetekariak. Hamar zenbaki kalera-tzen dituzte urtean eta 2.400 etxetara iristen da, guztira berriz, 3.500 ale banatzen dituzte. Aldizkarian jendea euskaraz bizitzera animatzeko gaiak, komikia, elkartearen berriak, euskal ekitaldien agenda, pertsonaia interesgarri bati eginiko elkarrizketa eta munduko hizkuntzen berri jasotzen dute. Ehungarren zenbakia osatu bitartean elkarteak kideek idazten zituzten artikulak baina 100. zenbakitik aurrera idazle eta adituen artikulak jasotzen dituzte *Karrikako* lehen orrian.

Etxaburu Karrikiriko kideak. Hala, Merkataritza gidarekin eguneroko bizitzan euskaraz non egin daitekeen jasotzen dute. Gida honetan Iruñerriko establezimendu euskaldunak jasotzen dituzte eta hori osatzeko Atarrabiako Karrikaluzeko elkartearen laguntza izaten du Karrikirik. Gida honetan, zerbitzua euskaraz emateko gai diren establezimenduak jasotzen dituzte.

Aurten, berrikuntza bat gaineratu dute arlo horretan, Euskal Bonoa: gidako establezimendu batera zer bait erostera joan eta euskaraz erostea lortuz gero bonoa bete eta zozketa batean parte hartzeko aukera dute erosleek. Bonoa Gabonetan aterazuten eta ekainaren 23an berriz kaleratuko dute. Modu honetara euskaldunek beste auzoetan euskaraz non eros dezaketen jakingo dute.

Karrika gurea da

Kalean erosketak euskaraz egin ahal izateko bidea jartzeaz gain, kalean giro euskalduna ere jartzen dute noizean behin elkarteak kideek. Horretarako, *Karrika gurea* da jaiak, Atun jana edota Iruñea Kantuz ekintzetan parte hartzen dute. *Karrika gurea* da jaietan, Zaldiko Maldiko elkartearekin batera, dantza taldeak, albokariak, txistulariak eta beste zenbait talde aritzen dira alde zaharreko Estafeta eta Mercaderes kaleetan barrena. Iruñea kantuz ekimenean berriz, hilabeteko lehen larunbatetan euskal kantuak



abestera irteten dira beste taldeekin batera. Bertaratzen direnei liburuxka bat banatzen zaie euskal kantu tradizionalak abestu ditzaten. Atun jana berriz, San Ferminetan egiten dute.

Iruñeko karriketan euskaraz jarduteko aukera ematez gain, Euskal Herriko beste zenbait txoko interesgarri euskaraz ezagutzeko irteerak ere antolatzen ditu Karrikirik. Pasa den irailean eman zioten hasiera Karribusari eta aurtengo kurtsorako hainbat txango antolatu dituzte: Martxoaren 24an esaterako, Biasterira egingo dute irteera, apirilaren 28an Pagoetara, maiatzaren 19an Bermeora eta ekainaren 30ean berriz Oñatira gerturatuko dira. Irteera hauen helburua eguna euskara hutsean igarotzea da; gida euskalduna izango da, autobus gidaria, jatetxeko zerbitzariak... ere bai. Txoko interesgarriak ezagutzera joateaz gain, ekitaldi berezietarako ere autobusak antolatzen ditu Karrikirik. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB